

EAEko neska-mutilek ia oso ongi bat atera dute 2008an unibertsitatera sartzeko probetan


Aurkeztutakoen % 55ak euskaraz egin du proba

Eustaten datuen arabera, 9.163 gazte matrikulatu dira 2008. urtean Euskal AEko unibertsitatera sartzeko probetara aurkezteko. Horien 8.588k gainditu du proba, hau da, % 94ak; gainditutakoen batez besteko nota 6,7koa izan da, ia oso ongia. Halaber, aurkeztutakoen % 55ak euskaraz egin du proba.

Ekaineko deialdian 7.557 ikasle matrikulatu ziren eta % 97ak gainditu zuen; uztaileko deialdian, aldiz, 1.632 ikasle matrikulatu ziren eta % 78ak gainditu zuen.

Gainerako autonomia-erkidegoetako emaitzekin alderatuta, Euskal AEk gaindituen hirugarren ehuneko altuena izan du: % 94. Oso hurbil geratzen dira, beraz, Valentziako Erkidegoa eta Extremadura, biak % 95arekin, eta Estatuko batez bestekoaren aldean zortzi puntu gorago.

1. grafikoa.- Gaindituak autonomia-erkidegoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT eta EIN

Ikastetxe pribatuetatik datozen eta D ereduan ikasi duten ikasleek lortu dituzte emaitza onenak.

Titulartasunari dagokionez, ikastetxe pribatuetako 4.952 ikaslek egin dituzte probak eta horietako 4.699 ikaslek (% 95) gainditu dituzte. Aitzitik, ikastetxe publikoetako 4.211 ikaslek egin dituzte probak eta horietako 3.889k gainditu du selektibitatea: % 92.

Hartu diren aukerei dagokienez, ikasle ia gehienak (9.139) aukera bakarrean matrikulatu dira eta 24 ikaslek aukera konbinatuak hartu dituzte, hau da, aukera bat baino gehiago hartuta aurkeztu dira probetara hautazko ikasgai modura beste aukera batzuei lotutako ikasgaiak egin dituztelako.

Batxilergoko aukeren artean, bada, gainditutako kopuruak honela banatu dira: humanitateak % 92,7 eta arteen aukera % 95,6. Bestalde, batez besteko nota ezberdinak eman dira: arteetan 6,3 eta osasunaren zientzietan 6,9.

Ikasketen hizkuntz modalitatearen araberrako emaitzetan ez da ezberdintasun handirik eman, baina D ereduko gaindituen kopurua (% 94,4) A eredukoena baino altuagoa (% 92,9) izan da.

Emakumezkoak dira oraindik gehien gainditzten dutenak

2008. urtean 5.278 emakume aurkeztu dira unibertsitatera sartzeko probetara, hau da, guztirakoaren % 58. Horien % 95ak gainditu du, gizonezkoek lortu duten ehunekoa (% 92) baino hiru puntu gehiagorekin geratuz eta azken zazpi urteetako joerarekin jarraituz.

1. taula.- Deialdi bakoitzean matrikulatutako eta gainditutako ikasle kopurua. 2008

	Matrikulatutakoak			Gainditutakoak, %		
	Guztira	Ekaina	Uztaila	Guztira	Ekaina	Uztaila
Euskal AE	9.163	7.557	1.632	93,7	97,1	78,2
Araba	1.223	1.011	223	95,3	95,8	89,7
Bizkaia	4.659	3.826	856	92,7	96,4	74,9
Gipuzkoa	3.281	2.720	553	94,6	98,5	78,7
Mutilak	3.885	3.096	780	92,1	96,4	76,9
Emakumeak	5.278	4.461	852	94,9	97,6	79,3
Publikoa	4.211	3.371	824	92,4	96,4	79,0
Pribatua	4.952	4.186	808	94,9	97,7	77,4
A eredua	4.167	3.424	787	92,9	95,6	77,5
D eredua	4.996	4.133	845	94,4	98,3	78,8
Arteak	182	127	50	95,6	99,2	96,0
Osasunaren Zientziak	2.508	2.142	378	95,1	98,3	78,6
Gizarte Zientziak	2.668	2.104	569	92,9	96,4	79,4
Zientifiko-Teknikoa	3.082	2.611	490	93,4	96,6	74,1
Humanitateak	699	550	143	92,7	96,9	80,4
Aukera konbinatuak	24	23	2	95,8	100,0	50,0
25 urtetik gora	438	-	-	53,9	-	-

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa +34-945-01 75 01 Helb.elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

Tel.:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp